

KULTUR GUNEAREN 11. BILERA (ez-ohikoa)**BERTARATUAK:**

KULTURA TEKNIKARIA	TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA
ARRANO ELKARTEA	LESAKAKO SOINULARIAK
BETI-GAZTE (KULTURA)	LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA	TXISTULARI TALDEA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA	LESAKAKO ABESBATZA
IRAIN GURASO ELKARTEA	GEROA BAI UDAL TALDEA
MAIRU ANTZERKI TAILERRA	EH BILDU UDAL TALDEA
MUSIKA ESKOLA	

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da.
2. Udako Zikloa: Lesakako abesbatzak proposamena egin du, iraiaren 11an *Lesaka Kantuz* udako zikloan egiteko. Maiatzaren 30a izanen da ziklo honetarako proposamenak bidaltzeko azken eguna. Ekainaren 6ko Bilgunean programazioa itxi eta iragartzen hasiko gara.
3. 2020ko San Ferminak: Ladisek, gai honen inguruan orain arte landutakoa azaldu du: Herriko komertzio, ostalari eta txozna batzordearekin elkartu da Udala. Gaur, Sorginxuloko bileran, kultur taldeekin. Hauen iritzia galdetu da eta honen inguruan solastu gara. Batzuk garbi ikusten dute ezinen direla ospatu, bertzeek *alternatibak* bilatu nahi dituzte, bertzelako besta eredu bat gauzatzeko. Herriko Etxearen jarrera zein izanen den galdetu dute eta hauek, iritzi ezberdinak aditu ondotik, hurrengo asteen beraien erabakia plazaratuko dutela erran dute.
4. Eskaerak eta galderak: Larrialdi egoera dela eta, bi hilabetez ezin elkartu ibili gara eta horregatik, Liburu Xurirako idatzi beharrekoa gibelatzea proposatu da. Honez gain Harriondoako araudiaren inguruko hausnarketa eta ekarpenak aitzinago egitea adostu da.
Herriko kultur espazioak (Harriondoa) noiz erabiltzen ahalko diren galdetu da. Egoera eta faseek erraten dutenaren arabera egin beharko da eta Udalak kultur tadeak abisatuko ditu.

Txistularien Taldetik Karrika bueltak egiten ahalko diren galdegin dute. Printzipioz egingarria izanen da.

Hurrengo bilera 2020ko ekainaren 6an, larunbata, goizeko 09:30ean, Herriko Etxeko pleno aretoran egingen dugu eta bilerak ordu eta erdiko iraupena izanen du.